



Usurbilgo Udala

2024/10/29

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2024KO URRIAREN 29AN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Iratxe Begiristain Otegi eta Ainhoa Arrozpide Landa.

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Ez dira bertaratu: Xabat Beloki Segurola eta Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

1.- 2024KO URRIAREN 8KO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2024ko urriaren 8ko akta aho batez onartu dute.

2.- ALDAPATXO ETXEAN (KALEZAR 8) JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2022OHAN0024).

KALEZAR 8 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen IRATI ARZALLUS MOREA andereak, Aldapatxo etxean (Kalezar 8) ezarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko abenduaren 13an zera erabaki zuen: KALEZAR 8 ETXEKO JABEKIDEEIN Aldapatxo etxean (Kalezar 8) igogailua jartzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	93.500,17 €
Obra amaierako ziurtagiria:	144.032,14 €
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 833,61 €
	Fidantza (%120): 1.000,33 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA

KALEZAR 8 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen IRATI ARZALLUS MOREA andereak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko jarritako 1.000,33 €-ko fidantza (IE 5-2024) bueltatzea eskatu du.



Usurbilgo Udala

2024/10/29

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman du 2024ko urriaren 22an.

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Aldapatxo etxean (Kalezar 8) ezarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2024ko otsailaren 5ean ezarritako 1.000,33 €-tako fidantza (IE 5-2024) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: ES95 2095 5069 0410 7325 5589

HIRUGARRENA: Kontuhartzaitzari jakinaraztea obra amaierako likidazioa 144.032,14 €-koa izan dela. EIOZ kitapena burutu behar da.

LAUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari ematea.

3.- OROITZAPENA ETXEAN (AGINAGA 29) JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2023OHAN0005).

OROITZAPENA - AGINAGA 29 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen Nikolas Barandiaran Contreras arkitektoak, Oroitzapena etxean (Aginaga 29) ezarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko martxoaren 28an zera erabaki zuen: OROITZAPENA - AGINAGA 29 ETXEKO JABEKIDEEI, Oroitzapena etxean (Aginaga 29) igogailua jartzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	88.419,90 €
Obra amaierako ziurtagiria:	114.031,06 €
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.637,90 € Fidantza (%120): 1.965,48 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, OROITZAPENA - AGINAGA 29 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen



Usurbilgo Udala

2024/10/29

Nikolas Barandiaran Contreras arkitektoak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko jarritako 1.965,48 €-ko fidantza (IE 28-2023) bueltatzea eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman du 2024ko urriaren 18an.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: Oroitzapena etxean (Aginaga 29) jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2023ko ekainaren 2an ezarritako 1.965,48 €-tako fidantza (IE 28-2023) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: ES64 2095 5069 0210 6126 5202.

HIRUGARRENA: Kontuhartzaitzari jakinaraztea obra amaierako likidazioa 114.031,06 €-koa izan dela. EIOZ kitapena burutu behar da.

LAUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari ematea.

4.- ETXEALDIA AUZOKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO KALE NAGUSIA-ETXEALDIA ARTEAN HIRI-IGOGAILUA GAUZATZEKO OBRA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA (2024LIRO0002).

Ikusirik

Kontratuaren gaia eta helburua: Etxealdia auzoko irisgarritasuna hobetzeko Kale Nagusia-Etxealdia artean hiri-igogailua gauzatzeko obra.

Unitate sustatzailea: hirigintza saila.

Kontratu mota: obra kontratua.

Prozedurari dagokionez

Espediente mota: ohiko tramitazioa du.

Esleipena egiteko bidea eta modua: prozedura irekia eta izapide arrunta bidez.

Baldintza Orriak: espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den



Usurbilgo Udala

2024/10/29

Administrazio Baldintza Zehatzen Orriak eta Preskripzio Teknikoak doaz.

Araudi aplikagarria

- Azaroaren 9ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea eta urriaren 12ko 1098/2001 Erregelamendua.
- Administrazio baldintza zehatzen orriak.

Txostenak

- Teknikariaren memoria.
- Idazkaritzaren lege txostena.
- Kontu-hartzailearen ziurtagiria.

Kontratua esleitzeko eskuduntza

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 2. Xedapen Gehigarriaren 1. eta 2023ko azaroaren 2ko 2023/1089 alkate dekretua ikusita, kontratua esleitzeko eskuduna Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarra da, kontratazio honek udal aurrekontuaren errekurtso arruntetik %5etik gorakoa eta %10etik beherakoa denez.

Guzti hori kontuan izanda, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: Prozedura ireki arruntaren bidez, Etxealdia auzoko irisgarritasuna hobetzeko Kale Nagusia-Etxealdia artean hiri-igogailua gauzatzeko obra kontratatzeko espedientea onartzea.

BIGARRENA: Kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriei onespena ematea.

HIRUGARRENA: Kontratua burutu ahal izateko BEZ barne 784.113,76 euroko gastua baimentzea kontusail honen kontura: 1 6000.601.153.00.01 2024 (4985) (RCT 1389-2024).

LAUGARRENA: Litzizioa udaleko kontratatzaile profilean argitaratzea.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.